



MIR azterketan atzerritarrei gaztelera eskatzen dieten bitartean, Osakidetzak euskara ez dakiten pertsonak kontratatzen jarraitzen du

Duela hiru aste, [Osakidetzak](#) jakitera eman zuen hainbat lanpostetan euskararen ezagutzarik izan beharko ez duten Europako Batasunetik kanpoko pertsonak kontratatuko dituela. Horren aurrean, [Hizkuntz Eskubideen Behatokiak](#) herritarren oinarriko eskubide eta osasun-sistemaren kalitatean izan ditzakeen kalteez ohartarazi du beste behin. Bitartean, joan den asteburuan izan ziren MIR azterketak izan zituen hizpide Kike Amonarriz [Euskaltzaleen Topaguneko](#) lehendakaria izandakoak, sare sozialetan. Izan ere, proba hori egiteko gaztelararen C1 maila eskatu zitzaizen gaztelania ofiziala ez duten herrialdeetako atzerritarrei. Osakidetzara sartzeko hautaprotetan euskara eskatzearen aurka dauden horiek buruan, zera adierazi zuen espainol jatorrean Amunarrizek: "¿Qué queremos, buenos médicos o filólogos hispanistas?" (Zer nahi dugu, mediku onak edo filologo hispanistak?).

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak egindako salaketa [hemen](#).



Euskara(z) osatzen Osakidetzan

"Zer nahiago duzu: medikuak zu sendatzea ala euskaraz egitea?". Beti entzun behar izaten dugun galderari buruz idatzi du [Jose Maria Pastor](#) kazetariak, [Berria](#) egunkarian argitaratutako iritzi-artikuluari.

Osorik irakurtzeko sakatu [hemen](#).



Erretiratutako osasun-langileek OEEko bazkide izaten jarrai dezakete

Erretiroa hartu arren, Osasungintza Euskalduntzeko Erakundeko bazkide diren osasun-langileek OEEkide izaten jarrai dezakete, OEEko bazkide jubilatutako gisa, kuota ordaindu gabe, hau da, ezer ordaindu gabe.



Roberto Manjón OEEkideak irabazi du Euskararen Eguneko lehiaketaren saskia

Abenduaren 3ko Euskararen Eguna ospatzeko, euskaraz noiz eta nola idatzi den ezagutzeko lehiaketa prestatu genuen OEEkideentzat. Bada, Roberto Manjón Lozoya Bilbo-Basurtuko ESiko itzultzaileak irabazi du Xiberuko Ikastolen aldeko saskia. Zorionak!